

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Erregeak Barcina Lehendakariari egin dio harrera bilera batean

Iragan maiatzaren 22ko hauteskundeen ondoren atara diren autonomia erkidegoetako lehendakari berriekin batzartzeko asmoaren barruan egin da

Martes, 27 de septiembre de 2011

Berorren maiestate Joan Karlos I.ak Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariari egin dio harrera, maiatzaren 22ko hauteskundeen ondoren hautatu ziren autonomia erkidego eta hirietako lehendakari berriekin erregea egiten ari den bileren itzuliaren barruan. Topaketa Zarzuela jauregian hasi da 13:00etan eta 35 minutu ingurukoa izan da.



Joan Karlos I.a erregeak Barcina Lehendakariari egin dio harrera

Amaieran, Barcina Lehendakariak Zarzuela jauregiaren sarreran zeuden hainbat hedabideren galderei erantzun die. Barcinak esan du erregeak "hainbat gauza jakin" dituela Nafarroako errealitatearen inguruan eta proiektu ekonomiko eta sozial nagusien berri jakin duela. Bileran, Foru Erkidegoko kontu nagusiak gainbegiratu eta horiez hitz egiteaz gain, erregea eta Lehendakaria Joan Karlos I.a erregeak Nafarroara egin dituen azken bisita ofizialez jardun dira. Yolanda Barcinak esan duenez, "erregeak gure erkidegoa modernitaterako bidean egiten ari den bilakaera azpimarratu du" eta zera gehitu du: "Joan Karlos I.a erregeak Foru Erkidegoko energia garbien ekoizpenaren eta kontsumoaren egungo egoeraren inguruko interesa izan du batez ere".

Bileran, estatuko egoera ekonomikoari eta administrazio publikoek gastu publikoari eta horri loturiko zorrari eusteko hartutako konpromisoak betetzeko ezarri beharreko doiketei buruz ere aritu dira.

Azkenik, Nafarroako Lehendakariak esan du, alde pertsonalari dagokionez, erregea "sasoi onean" ikusi duela eta jakinarazi dio espero duela operazioaren ondorengo fasea aurki aमितzea, ohiko agendari al bait azkarren berriz ekin diezaion; izan ere, jakina den bezala, agenda mugatua du, azken ebakuntza kirurgikoaren ondorioz mugikortasun arazoak dituelako.